

ITURRI ONDOAN 10 urte

Iturri berriak

Uztailak 15, larunbata

Goazen ba ospatzera. Euskaratik eta euskaraz, herritarrok sortutako, antolatutako, bideratutako ekimen hau 10. urtez egiten dugula-eta, geure buruak zoriontzera; goazen goatzera

Egitaraua:

- 12:30ean **ITURRI BERRIAK**.
3 ibilbide sekretu, 3 iturri berri.
Amalur, Eguzki eta Ilargik gidatuko gaituzte, 20 bat minutuko kultur emarietara. Non, zer, nor? Sekretua.

Jakin-mina baduzu, gonbidapena jaso beharko duzu, Turismo bulegoan, uztailaren 14a baino lehen.


- 15:00etan **ITURRIAN GALERNA**. Bazkaria kioskoan (eguraldi txarra egiten badu, karpan). Sareak sendotzen. Bazkaria gazte asanbladarekin batera antolatuko dugu, Galerna festarekin bat eginez.

Bazkaria: 15€ (natxoak, paella, postrea eta kafea). Txotxa: 5€ (beste zerbeit nahi duenak, berak ekarri beharko du). Bere kontura bazkaria egin/ekarri baina mahaian bazkaldu nahi duenak txartela hartu beharko du: 2€.

Txartelak eskuratzeko tokiak: Turismo bulegoa eta Zalburdi taberna.

Azken eguna: uztailak 9.

- 17:30ean **ITURRIONDOKO FESTA**, Plaza Zaharrean. Herritarrek herritarrentzat: kantuak, jolasak, bertsoak, istorioak, ... (eguraldi txarra egiten badu, karpan).



BILUZTU

Egilea: Kuraia

Kateaturik gaude desiozko katearen bitartez,
Bakoitza bere aldetik autismoak gaitu behartzen.
Ezinezko lekutan elkar bilatzen gaude beti.
Topo egiterakoan ixiltasunak gaitu kontsumitzen....
OH EZ! , hesi bat jantzi dugu biluztu beharrean
Maitia, penitentzi bezala bakarrik gozatzera.

ENE BEGIEK

Egilea: Ruper Ordorika

Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik,
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako. Entzun,
astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.
Begira erlojuetako orratzak uneka herdoiltzen.

Zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan
edo laku urdinen hondoa, bizitza bakarrean,
eta zenbat aldiz galdu naizen behelainotan
basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.

Ene desirak iada ez dira habia abandonatuak besterik
ene bihotzean. Eguzkia gurpil ahul bat da.
Ez dezadan gehiago entzun, begiratu, ez pentsatu,
bizitza hau bakarra delako, gal ez dadin, ibili ez
eta senditu ere ez, harriak legez izan nahi dut,
mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua,
lekua besterik ez izan, hurrin deritzan aberrian.

HITZETAN

Letra: Xabi Igoa/Musika: Idoia Asurmendi

Goizetan, ispilu parean
harro irri egitean;
eme oldarkorretan, negarrari beldurrik ez dioten gizonetan.

Karminezko ezpainetan
txiste txarrenek erantzun dituzten aurpegietan, serioenetan erantzukizuna ere diren
erantzunetan.

Angela Davisen hitzetan,
Maialen Lujanbioren azken puntuetan; Maurizia zenaren irrintzietan
ahots korden kontzientzietan.

Berriz esan ez dezaten
ez dagoela denon eskuetan; gizartearen arazoa den, ardura komun den honetan.

Zilegi diren beldurretan,
gure amonaren ezkutuko aienetan; Maurizia zenaren irrintzietan
eta haren ondorengoetan.

Angela Davisen hitzetan,
Maialen Lujanbioren azken puntuetan.

Zilegi diren beldurretan,
gure amonaren ezkutuko aienetan; Maurizia zenaren irrintzietan
eta haren ondorengoetan.

Maurizia zenaren irrintzietan gure ahoz botatakoetan, botatakoetan.

OROITZAPENЕК ESNATU NAUTE

Letra eta Musika: Esti Markez

Gogoratzen naiz, udazkeneko
Egun hits bat zela
Zu eta biok, hain pozik
Lagun artean geundela
Oroitzen zaitut, hain alai
Eta zoriontsu zirela

Oroitzapenek esnatu naute
Ametsetan nengoela
Alboan sentitzen zaitudan arren
Ohartu naiz ez zaudela
Ez zaudela, ez zaudela, ez zaudela

Esperantzari utz iezaiozu
Landatzen hazia
Desioa bilakatu
Ilusio erauntsia
Maitasuna izan daiteke
Mingots garratz ta gazia

Oroitzapenek esnatu naute
Ametsetan nengoela
Alboan sentitzen zaitudan arren
Ohartu naiz ez zaudela
Ez zaudela, ez zaudela, ez zaudela

Denborarekin bihurtu zara
Bihotzean orbain
Maite zintudan guztiak
Ez du deus balio orain
Itzulera amestuko dut
Jarraituko dut zure zain

Oroitzapenek esnatu naute
Ametsetan nengoela
Alboan sentitzen zaitudan arren
Ohartu naiz ez zaudela
Ez zaudela, ez zaudela, ez zaudela

Orain soilik geratzen zait
Gutaz idaztea
Muxu, laztan eta irriak
Ez da erraza, ahaztea
Gogorra, latza ta zaila da
Joan zarela onartzea

Oroitzapenek esnatu naute
Ametsetan nengoela
Alboan sentitzen zaitudan arren
Ohartu naiz ez zaudela
Ez zaudela, ez zaudela, ez zaudela

HEMEN GAUDE

Letra: Joseba Sarrionandia/Musika: Ken Zazpi

Agian hasieran bertan ekibokatu ginen
mundura euskaldun sortzean
eta gero, gero ez genuen iraultzaren borrokatik
apartatzen jakin
esna kantu bat abestu genion sehaska hutsari
eta goiz batez El Puerto-ko gartzelan esnatu ginen

Maite genituen gauzengatik erori ginen preso
baina gure maitasuna oraindik ez dago preso

Zorionez edo zorigaitzez aunitz ekibokatu ekarri gintuzten
deserriko azken ipurdi hontan bizi edo hiltzera
eta bizi, estu, larri, ia mirariz, gainbizi gara
eta bizitza ez da guretzat egundo izango
lehen zen bezalakoa harrez gero

Maite genituen gauzengatik erori ginen preso
baina gure maitasuna oraindik ez dago preso
maite genituen gauzengatik erori ginen preso
baina gure maitasuna oraindik ez dago preso

ERROTAZAR MAITEA

Letra eta musika: Lourdes Iriondo/Xabier Lete

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean ta
basati beltzean.

Negar egiten dezu
aleak txetzean.

Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.

Zotin segua dabil
errotarria itzalitako
izar distirak
dira neretzat
zure begiak.

Izar eder bat dago
hor goiko lekuan,
errota zaharra berriz
erreka zokuan.

Berebiziko pena
badaukat barruan,
ezin gintezke bizi
elkarren ondoan.

Bizitzaren legea
nahi det onartu
hala beharra
kuraiez hartu
berez doana
zertan behartu.

IHESA ZILEGI BALITZ

Letra: Xabier Lete/Musika: Mikel Laboa

<i>Intro: gitarra</i>	<i>Gitarra eta akordeoia</i>
Ihes betea zilegi balitz	Ihes betea zilegi balitz
Nunbait balego bakea	Nunbait balego bakea
Ni ez nintzake etxe ertzeko	Ni ez nintzake etxe ertzeko
Loredien maitalea	Loredien maitalea
Ni ez nintzake oinazearen	Ni ez nintzake oinazearen
Menpeko mixerablea	Menpeko mixerablea
Oihu zekenen destinatzaile	Oihu zekenen destinatzaile
Etsipenaren semea	Etsipenaren semea
Ni ez nintzake iñorentzako	Ni ez nintzake iñorentzako
Eskandaluzko kaltea	Eskandaluzko kaltea
Lur hotz batetan aldatutako	Lur hotz batetan aldatutako
Landare sustrai gabea	Landare sustrai gabea
<i>Gitarra</i>	<i>Gitarra</i>
Ihes ederra zilegi balitz	Ihes ederra zilegi balitz
Urra ahal baledi katea	Urra ahal baledi katea
Ni ez nintzake ontzi gabeko	Ni ez nintzake ontzi gabeko
Itsasgizon ahalgea	Itsasgizon ahalgea
	<i>Gitarra eta akordeoia</i>
	Mmmmmmm

ABERRIAREN MUGAK

Letra: Joxerra Garzia/Musika: Txomin Artola

Nire aberria lurra bezain zaharra da
Baina ez da lurra bakarrik,
Haizeak bezala inguratzen nau eta
Lotzen, askatzen nauelarik

Nire aberria suaren antzekoa da
Beti bera, berria beti
Epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean
Ta erretzen ere badaki

Aberriaren mugak, euskararenak,
Gure baitan daude gehienak,
Euskara zabalduaz lau haizeetara
Zabalago egiten gara

Nire aberria harrizko herria da,
Hitzezkoa eta hitzekoa,
Altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa
Eta hondar anonimoa

Nire aberria burdin bihurria da
Oroimenean arindua
Itsaslaminek baten herdoilezko kantu
Etorkizunez fosildua

Aberriaren mugak, euskararenak,
Gure baitan daude gehienak,
Euskara zabalduaz lau haizeetara
Zabalago egiten gara.

KONTXESIRI

Letra: Juan Ignazio Iztueta/Musika: Herrikoia-Xabier Sarasola

- I -

Maite bat maitatzen det, maitagarria
begi ederra du ta guztiz argia
daukat urruti
bainan ezin kendu det burutik
haren itxura
saldu al baliteke pisura
urriaren truke
nork erosi faltako ez luke.

- II -

Hogeita lau leguaz nago aparte
bitartean badauzkat miloi bat ate
guztiak itxirik
nahi arren ezin egon ixilik
beti negarrez
nere maite-maitearen galdez
ote dan bizi
bihotz-bihotz nereko Kontxesi!

- III -

Ai hau bakardadea eta tristura
nere bihotz gaixoa ezin piztu da
hain dago hila!
beti dabil kontsuelo bila
bere artean
banengo maitearen aldean
ordutxo biko
pena guztiak lirake hilko!

- IV -

Esperantzetan bizi, maite gozoa
noizbait kunplituko da gure plazoa
eta orduan
gauza txarrik ez hartu buruan
lehengoari utzi
ez degu pasatzen pena gutxi
preso sei urtez
onduko gaituzte nere ustez.

ZEINEN EDERRA IZANGO DEN

Egilea: Zetak

Zeinen ederra izango den

Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten

Muxu bat Larrunen

Garagardo bat zerura eroritakoen omenez

Ilobak amona ezagutzean

Haritz bat jaioko da Urbasan

Urteekin ohartuko gara

Betirako biziko zela

Herri txikietako festetan

Esnatuko bagina bihar

Dantzatuko genuke plazetan

Sekula-santan ez bezala

Lagun minekin ilunabarra

Eternala bihurtuko da

Xuxurlatuko digu ilargiak

Oraindik denok ez gaudela

Eta kantu bakoitzean

Utziko genuke eztarria

Azkenengoa bailitzan

Edota denetan lehenengoa

Gu zorionekoak

Gordetako ametsen kutxa irekiak

Gu zorionekoak

Gordetako ametsen kutxa irekiak

Zeinen ederra izango den

Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten

Muxu bat Larrunen

Garagardo bat zerura eroritakoen omenez

Zeinen ederra izango den

Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten

Muxu bat Larrunen

Garagardo bat zerura eroritakoen omenez